



GIPUZKOA



ETA EUROPAR BATASUNA

78. INFORMAZIO BULETINA

2013ko Maiatza



GIPUZKOA



NABARMENDU BEHARREKOA

> Europako Funts Sozialaren Programa Operatiboaren Jarraipen Batzordea bildu da Euskadin

2013ko maiatzaren 30ean, Bilbon egin zen 2007-2013 denboraldian Euskadin izandako Europako Funts Sozialaren Programa Operatiboaren Jarraipen Batzordeko bilera. Bilerak 2012. urteari dagokion Programa Operatiboko urteko exekuzio-txostena aurkeztu eta onartzeko balio izan zuen; bestalde, egungo egoera soziala eta ekonomikoa ere aztertu zituzten jarduera-ardatz bakoitzean programaren exekuzioari dagozkien datuak aurkeztuta.

Zehazki, eta jarraipen-bileran emandako datuen arabera, Euskadiko EFSren POren exekuzio mailak guztizkoaren % 63,5 lortu du 2012an datu ekonomikoak kontuan hartzen baditugu. Orotara, 119.653 pertsonak hartu du parte programaren ekintzetan.

Bilera amaitzeko, Stanislav Ranguelov-k, Europako Batzordeko ordezkariak, Europako Funts Sozialean 2014-2020 hurrengo programazio-aldirako proposatutako ildo orokorrak aurkeztu zituen.

Informazio gehiago:

http://www.lanbide.net/plsql/EU_FONDO_INFORMACION?idioma=E



> Europako Batzordearen ustez, Euskadiko FEDER Programa Operatiboa nabarmendu beharreko “arrakastaren erakusgarria” da

Maiatzaren erdialdera, Zornotzan, 2007-2013 Euskadiko FEDER Programa Operatiboaren Jarraipen Batzordeko bilera egin zen. Aipatutako topaketan Programaren kudeaketan eta garapenean inplikaturako hogeita hamar eragile publiko eta pribatu inguruk parte hartu zuen eta Programak azken urteotan lortutako aurrerapenak nabarmentzeko balio izan zuen.

Estrategia Empresarial aldizkariak azken alean biltzen duenaren arabera (2013ko ekainak 1), bileran, Jordi Torreadella DG REGIOren Espainiako Unitateko buruaren ondokoak honako hau aipatu zuen: Euskadiko Programa Operatiboa “arrakastaren erakusgarria da eta balioa eman behar zaio. Programa Operatiboak Euskadik I+G+b-ren eta Lisboako helburuen alde egindako apustua islatzen du”.

Ekitaldia, besteak beste, honako hauek zuzendu zuten: Jose Maria Barrutia Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Plangintza arloko zuzendariak eta Anatolio Alonso FEDEReko (Ogasun eta Administrazio Publikoetako Ministerioa) Administraziooko zuzendariorde nagusiak. Alboan zuten Teresa Cubillo FEDEReko Administraziooko Zuzendaritzaorde Nagusiko aholkulari teknikoa. Horiez gain, honako hauek eseri ziren mahaian: Jordi Torreadella; Auxiliadora Valpuesta, Europako Batzordekoa, Euskadiko Programa Operatiboaren reporterra, eta José Antonio Varela Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzaren Eskualdeko Programako Zerbitzuko burua.

Informazio gehiago:

http://www.ogasun.ejgv.euskadi.net/r51-19239/es/contenidos/informacion/politica_regional/es_2340/adjuntos/europa-junio-2013-2.pdf



> **Gipuzkoako Foru Aldundiak Europako finantzaketara sarrera izateko bideei buruzko prestakuntza-ikastaroa antolatu du**

Europar Batasunak konfinantzaketako hainbat lerro eta programa jartzen ditu enpresen, administrazioen, elkarteen, erakundeen eta herritarren eskura. Urteko deialdiekin egindako jarduera-lerro espezifikoek eta programez gain, Kohesio Politika bidez Europako egitura funtsen gaitzea proiektuak garatu eta martxan jartzean aintzat hartu beharreko finantzazio-iturri garrantzitsua da.

Hori dela eta, kofinantzaketa-iturri horiek hainbat foru aldunditako jarduerak garatzeko duten garrantzia aintzat hartuz, eta finantzazio-tresna horien eta horietara iristeko jarraitu beharreko prozeduren ezagutzaz jabetuta, Gipuzkoako Foru Aldundiko Politika Fiskaleko eta Finantza Politikako, eta Kanpo Harremanetako zuzendaritzek, maiatzean eta ekainean, foru-aldundietako teknikariei eta buruzagitzei zuzendutako prestakuntza-ikastaroa antolatu dute.

Ikastaroaren helburua Europako proiektuen diseinuaren gainean ezagutza praktikoa bultzatzea da, baita Europako funtsen egituren baitan eta ekintza-lerroen baitan kokatzea ere. Bertaratutakoei jarduera- eta gomendio-protokoloa eskainiko zaie Europako proiektua behar bezala egiteko.

Informazio gehiago:

http://dl.dropboxusercontent.com/u/56748384/Nola%20lor%20dezaket%20nire%20proiektuetarako%20europar%20finantzazioa_GFA-ikei.pdf



> Jakinarazi dituzte **Nola ikusten du Europa Euskadin? argazki-lehiaketako bigarren edizioko irabazleen izenak**

Bigarren urtez jarraian, Eusko Jaurlaritzak, otsaila eta maiatza bitartean, Europa euskal gazteei gerturatzea helburu zuen gazteentzako argazki-lehiaketa jarri zuen abian. Argazkietan, Europak gazteen hurbileko ingurua garatzen lagundu duen moduari buruz gazteek duten ikuspegia islatzera animatu nahi izan dituzte.

Non ikusten duzu Europa Euskadin? izenburupean, Ekonomia eta Ogasun Saileko Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak sustatutako ekimena Facebook-en duen plataformaren bidez garatu da. Parte hartu nahi zuten gazteek argazkiak jarri eta Europari buruz duten ikuspegia partekatu ahal izan dituzte sormena erabilita.

Bigarren deialdi honetan 14 eta 25 urte arte 50 gazte inguruk hartu du parte eta 147 argazki bidali dituzte guztira. Galdakaoko Endika Torrerenan izan da argazki irabazlea. Portugaleteko Benedikta igogailutik ateratako argazkia zen. Gasteizko Iñaki Nuñezek irabazi du bigarren saria Salburuako hezegunearen argazkiarekin. Hirugarren lekuan, Facebooken boto gehien lortu dituen argazkien artean, Legazpiko Gorka Gómez izan da irabazlea: Bilbon, Abandoibarra pasealekuko gaueko irudia.

Informazio gehiago:

http://www.ogasun.ejgv.euskadi.net/r51-19239/es/contenidos/informacion/politica_regional/es_2340/adjuntos/europa-junio-2013-1.pdf

<https://www.facebook.com/feder.ejgv>

https://twitter.com/feder_euskadi



> Europa eta Gipuzkoako Foru Aldundia izango dira EHUko udako ikastaroetan

Euskal Herriko Unibertsitateko Udako Ikastaroen XXXII. edizioak ikastaroen, mintegien, topaketen eta jardunaldien aukera zabalaren barruan Europarekin lotutako ikastaroen kopuru handia biltzen du. Horietako batzuetan, modu aktiboan parte hartu eta lagunduko du Gipuzkoako Foru Aldundiak. Besteak beste, ikastaro hauek nabarmendu behar ditugu:

- **Erabakitzeko eskubidetik sezesiora, Estatu berrien sorrera Europan.** Ikastaroa Gipuzkoako Foru Aldundiarekin elkarlanean antolatu dute. Ikastaroaren egunak: 2013ko ekainak 17, 18 eta 19.
<http://udaikastaroak2.i2basque.es/images/cursosPdf/C1.pdf>
- **Generoarekin lotutako ikuspegiak zientziara, teknologiarara eta berrikuntzara.** Ikastaroaren egunak: 2013ko ekainak 17 eta 18.
<http://udaikastaroak2.i2basque.es/images/cursosPdf/B1.pdf>
- **Smartcity izenekoak edo hiri adimentsuak / Smart Energy** Ikastaroaren egunak: 2013ko ekainak 24 eta 25.
<http://udaikastaroak2.i2basque.es/images/cursosPdf/E1.pdf>
- **Europari buruzko mintegia. Krisia, desertzioak eta populismoak.** 2013ko uztailak 10, 11 eta 12.
<http://udaikastaroak2.i2basque.es/images/cursosPdf/D2.pdf>
- **Industria sortzaileak. Europa Sortzailea 2014-2020.** Ikastaroaren eguna: 2013ko uztailak 12.
<http://udaikastaroak2.i2basque.es/images/cursosPdf/E7.pdf>
- **Europar Batasuneko finantza-interesen babesari buruzko eztabaida.** 2013ko uztailak 16.
<http://udaikastaroak2.i2basque.es/images/cursosPdf/C6.pdf>
- **Gizartea, ekonomia eta merkatuak. Europa: Dr. Jekyll edo Mr. Hyde?** Eurobaskekin elkarlanean antolatutako ikastaroa. Ikastaroaren egunak: 2013ko uztailak 17, 18 eta 19.
<http://udaikastaroak2.i2basque.es/images/cursosPdf/A4.pdf>
- **Demokrazia feminista izango da edo ez da izango: demokrazia inklusiborako teoria eta praxia.** Ikastaroa Gipuzkoako Foru Aldundiaren Berdintasun Zuzendaritzarekin elkarlanean antolatu dute. Ikastaroaren egunak: 2013ko uztailak 22 eta 23.
<http://udaikastaroak2.i2basque.es/images/cursosPdf/A5.pdf>
- **Garapen iraunkorrerako gobernantza.** Ikastaroaren egunak: 2013ko uztailak 29 eta 30.
<http://udaikastaroak2.i2basque.es/images/cursosPdf/E8.pdf>
- **Partaidetza enpresen jasangarritasunerako.** Gipuzkoako Foru Aldundiaren Berrikuntzako, Landa Garapenerako eta Turismoko Departamentuarekin elkarlanean antolatutako ikastaroa. Ikastaroaren egunak: 2013ko irailak 5 eta 6.
<http://udaikastaroak2.i2basque.es/images/cursosPdf/E10.pdf>

Informazio gehiago:

<http://www.sc.ehu.es/scrwwsu/index.htm>



KOHESIO-POLITIKA

> Batzordeak Egitura Funtzen Araudi Orokorra aldatzea proposatzen du finantza-arriskuan dauden estatu kideetan Kohesio Politikaren aplikazioa errazteko

Europako Batzordeak Araudi Orokorra aldatzeko proposamena aurkeztu du. Horren bidez ezartzen dira Eskualdeko Garapeneko Europako Funtzari (FEDER), Europako Funtz Sozialari (FSE) eta Kohesio Funtzari (FC) dagozkien xedapen orokorrak, betiere, 2007-13 amaierara arte % 10eko osagarria hedatzeko helburuarekin eta finantza-egonkortasunarekin lotuta zailtasun larriak izateko arriskuan dauden estatu kideei esleipenak erabiltzeko denbora gehiago emateko.

Zehazki, Araudiko artikulua jakin batzuk aldatzea proposatu dute Batzordeak 2007-2013 aldiaren amaierara arte aitortu berri dituen gastuak ordaintzen jarrai dezan. Gainera, zenbatekoa igo dute eta lehentasunezko ardatzari aplikatuko zaizkion kofinantzaketaren ehunekoei % 10eko osagarria erantsiz kalkulatu da.

Araudi orokorra aldatzea ere proposatu dute Errumania eta Eslovakiarako 2011 eta 2012ko konpromisoen askatze automatikoaren aldia beste urtebetez luzatzeko aukera emateko.

Informazio gehiago:

http://europa.eu/rapid/press-release_IP-13-446_en.htm

<http://eur-lex.europa.eu/LexUriServ/LexUriServ.do?uri=COM:2013:0301:FIN:ES:PDF>



> **Neurri berriak kide diren zenbait estaturi aplikatutako Gehiegizko Defizitaren Prozedura-markoa aldatzeko**

Europako Batzordeak gomendio jakin batzuk eman ditu kide diren sei estatutan gehiegizko defizita zuzentzeko epeak luzatzeko helburuarekin. Epea Gehiegizko Defizitaren Prozedurak (PDE), Europar Batasuneko Funtzionamenduko Tratatuan aurrez ikusitako tresnak, ezartzen du. Horren bidez, kide diren estatutuak aurrekontu nazionaletan gehiegizko defizitak ekiditera derrigortuta daude.

Horrekin lotuta, Batasuneko kide diren hogeitaz hamar estatutan indarrean den Gehiegizko Defizitaren Prozedura aldatzea proposatu du Batzordeak (Batasuneko kide diren estatu guztiek dute aktibatuta prozedura hori honako hauek izan ezik: Bulgaria, Alemania, Estonia, Luxenburgo, Malta, Finlandia eta Suedia).

Zehazki, Europako Batzordearen proposamena herrialde hauetarako PDE indargabetzea da: Italia, Letonia, Hungaria, Lituania eta Errumania. Eta aldiz, Batzordeak Maltari gehiegizko defizitaren prozedura irekitzeko proposatu du. Beste herrialde batzuetan, aldiz, PDE luzatzeko proposamena egin du. Herrialde horien artean dago Espainia; kasu honetan, Batzordeak gehiegizko defizita amaitzeko epea bi urtetan luzatzea gomendatu du.

Informazio gehiago:

http://ec.europa.eu/economy_finance/economic_governance/sgp/corrective_arm/index_en.htm

http://ec.europa.eu/economy_finance/economic_governance/sgp/pdf/30_edps/other_documents/2013-05-29_es_126-7_commission_-_swd_es.pdf

http://ec.europa.eu/economy_finance/economic_governance/sgp/pdf/30_edps/126-07_commission/2013-05-29_es_126-7_commission_es.pdf



> **Batzordeak herritarrentzako eta enpresentzako irisgarriagoa eta gardenagoa den banku-komisioen sistema nahi du**

Europako kontsumitzaileek bankuetako komisioen gainean informazio gehiago izan dezaten, Europako Batzordeak banku-kontuekin lotutako komisioen gardentasunari eta alderagarritasunari buruzko direktibaren proposamen berria argitaratu du.

Proposamen horrekin, herritarrek bankuko kontu bat irekitzean edo kontuz aldatzean izaten dituzten komisioen arteko alderaketa erraztu nahi du Batzordeak. Proposamen horrekin finantza-zerbitzuen sektoreari ere mesede egingo diola uste dute, mugaz gaindiko banku-produktuen eskaintza sortzeko pizgarri gehigarriak izango baitituzte.

Europako Batzordearen proposamenak hiru arlo ditu:

- Ordainketa-kontuengatik Batasunean bankuek eta beste ordainketa-zerbitzu batzuek kobratzen dituzten komisioak alderatzeko erraztasuna.
- Banku batetik beste batera edo beste ordainketa-zerbitzu batera egindako ordainketa-kontuak aldatzeko prozedura erraza eta azkarra ezartzea.
- Bankua edo ordainketa-zerbitzuak ematen dituen kokatuta dagoen herrialdean egoiliar izan gabe ordainketa-kontuak irekitzeko aukera izatea.

Informazio gehiago:

http://ec.europa.eu/internal_market/finservices-retail/inclusion/index_en.htm

http://ec.europa.eu/dgs/health_consumer/pressroom/bank-accounts_en.htm



> **Gipuzkoako emakumeek 2011ko PFEZn aitortutako batez besteko errenta gizonezkoena baino 10.589 euro gutxiagokoa da**

Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuak argitaratutako txosten batean Gipuzkoan aitortutako sexuaren arabera 2011ko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren ezaugarri nagusiak aztertu dituzte. Txosten horren helburua, beraz, zergaren ezaugarri nagusiak eta izandako bilakaera aztertzea da, lurraldean aitortutako pertsonen sexuaren arabera.

Hala, txostenaren arabera, Gipuzkoan emakumezkoek aitortutako batez besteko errenta (zergaren zerga-oinarria kontuan hartuta) 15.604 eurokoa da, eta aldiz, gizonezkoena, 26.193 eurokoa. Hau da, emakumezkoena gizonezkoena baino % 40,4 txikiagoa da.

Aitortutako errentaren osagai nagusia, hau da, lan-errendimenduak kontuan hartuta (% 79,4 emakumeen kasuan eta % 84,8 gizonezkoen kasuan), generoen artean dagoen aldeak erakusten du emakumezkoek gizonezkoek baino soldata baxuagoak jasotzen dituztela. Alde hori izan daiteke, neurri batean behintzat, emakumezkoen artean ohikoagoa diren lan-jardunaldien tipologia ugari daudelako (denboraldien arabera, lanaldi partziala...).

Informazio gehiago:

<http://www.gipuzkoaberri.net/WAS/CORP/DPDOficinaPrensaDigitalWEB/descarga.do?121110117116066083043104116115121106115110105116066070043104116105110108116066061053053043116119105106115066054>



> **Berrikuntza Sozialerako Europako Gida aurkeztuko dute Bilbon ekainaren amaieran izango den jardunaldi batean**

Berrikuntza soziala, pertsonekin eta pertsonentzat balioa sortzen izenburupean, ekainaren 28an Bilbon Europan berrikuntza sozialaren bilakaera ezagutzeko jardunaldia egingo dute. Ekitaldia Innobasquek eta S3 Europako plataformak antolatu dute eta martxoan Europako Batzordeak argitaratutako *Berrikuntza Sozialerako Europako Gida* aurkezteko baliatuko dute. Gidan Europar Batasuneko hainbat eskualdetan martxan jarritako ekimenen adibideak eta berrikuntza soziala bultzatzeko administrazio publikoen gomendioak bildu dituzte.

Jardunaldi honekin, gainera, Europako beste eskualde batzuek espezializazio adimentsuko estrategietan (S3) berrikuntza soziala nola txertatu duten ezagutarazteko aukera izango dute. Horrez gain, eskualdeko berrikuntza soziala Europako sareekin lotzeko lankidetzako plataforma bat eta berrikuntza sozialeko jardunbide egokiak aurkeztuko dituzte.

Berrikuntza Sozialeko Eskualdeko Adierazlea (Resindex) ere ezagutzera emango dute. Adierazleak eskualdeen berrikuntza sozialeko egoera neurtzen eta ebaluatzen du eta bertan parte hartzen dute EHUko Berrikuntza Sozialeko Zentroak (SINNERGIAK), Innobasquek eta, besteak beste, Gipuzkoako Foru Aldundiak, adierazle horren kontraste-taldeko kide den heinean.

Adierazleen panelak, adierazle sintetiko batean sartuta (Resindex izena du), honako hauek egiteko aukera eskaintzen du: berrikuntza sozialak eskualde mailan duen jarduera kalkulatu, adierazle horiek beteko dituzten eskualde mailako berrikuntza sozialeko politikak diseinatu eta antolaketa maila batean berrikuntza sozialaren garapenean eragina izan dezaketen faktoreak ebaluatu.

Informazio gehiago:

<http://www.innobasque.com/Modulos/DocumentosVisor.aspx?docId=847&js=1>



EUROPA 2020 ESTRATEGIA

> Batzordearen beste gomendio batzuk Europa krisitik ateratzeko eta hazkunderaren oinarriak sendotzeko

Europako Batzordeak hainbat gomendio argitaratu ditu kide diren estatuentzat Europa krisitik ateratzeko, Europako hazkunderaren oinarriak sendotzea alde batera utzi gabe.

Gomendio horiek kide diren estatuen egoeraren azterketa xehatua oinarrituta daude eta gobernuari orientazioa ematen diete hazkunderako potentziala bultzatzeko, lehiakortasuna handitzeko eta hurrengo bi urteetan lanpostuak sortzeko moduari buruz.

Batzordeak honako neurri-pakete hau ezarri du:

- Batzordeko kide diren herrialdeen arabera azterketako ondorio nagusiak eta Europar Batasun osoan enplegua sortzea eta hazkunde ekonomikoa bultzatzea ahalbidetuko lukeen modua laburtzen dituen komunikazio-lana.
- 24 gomendioko sorta, estatu bakoitzerako bat (Grezia, Irlanda, Portugal eta Zipre izan ezik). Gomendio horietan aurrekontu-politiketan, politika ekonomikoetan eta politika sozialetan herrialde bakoitzak jarraitu beharreko orientazio espezifikoak bildu dituzte, herrialde bakoitzaren egoera kontuan hartuta.
- Gomendioak oinarritutako azterketa xehatuak, 29 laneko dokumentutan bilduta (kide den estatu bakoitzerako bat, eurogunerako bat eta beste bat Kroaziarako).
- Europako seihilekoaren gomendioekin batera, Batzordeak Gehiegizko Defizitaren Prozeduraren testuinguruan hainbat erabaki ere hartu ditu.

Informazio gehiago:

http://europa.eu/rapid/press-release_IP-13-463_es.htm



> Abian da elektronikaren sektorerako Europako estrategia industrial berria

Batzordeak sektore ekonomikorako Europako estrategia industrial berria aurkeztu du. Horrekin mikroelektronikan eta nanoelektronikan egindako inbertsio publikoak koordinatu nahi dituzte, Europan fabrikazio aurreratuaren oinarria zabaltzeko asmoz. Izan ere, Europako sektore elektronikoa Europako lehiakortasun industrialaren oinarrian dago, oro har, eta beste sektore batzuetarako funtsezko teknologia eskaintzen du, bai energiaren arloan, bai automobilgintzan, bai osasun arloan.

Batzordearen arabera, elektronikaren sektorearen gorakada funtsezkoa da Europa osoan hazkundera eta enplegua izateko. Beraz, Europako sektore ekonomiko guztiek jasoko lituzkete estrategia honen onurak, BPGaren % 10 gutxienez produktu eta zerbitzu elektronikoen mende baitago.

Elektronikaren sektoreko estrategia industrial berriaren oinarritzko elementuen artean aipatzekoak dira I+G+b arloan egindako inbertsioak kopuruari eta koordinazioari dagokionez igo egin behar direla EBko eta kide diren estatuen inbertsioen inpaktua maximizatzeko. Horretarako, mugaz gaindiko lankidetzak estuagoa, elektronikaren sektorean mundu mailako kategoriako taldeak indartu (Dresde, Eindhoven, Lovaina eta Grenoble) eta punta-puntako Europako beste talde batzuekin lotu behar dira (Cambridge, Carintia, Dublin eta Milan). Horrez gain, aipatu beharrekoa da sektorean berrikuntza eta ikerketa lantzeko helburu komunak multzoaren mesedetan Batasunaren funtsetatik, funts pribatuetatik, eskualdeko funtsetatik eta estatu mailako funtsetatik ateratako 10.000 milioi euro mobilizatu dituztela.

Informazio gehiago:

http://ec.europa.eu/information_society/newsroom/cf/dae/document.cfm?doc_id=2138

> Indarrean da Europako aurrekontuen gainbegiraketa hobetzea xede duen legegintza arloko paketea

Maiatzaren 30ean sartu da indarrean aurrekontuak gainbegiratzeko legegintza-erreformen paketea, "Two-Pack" izenekoa. Hartutako neurri berriek kide diren estatuek hartutako aurrekontu-erabakietan gardentasun handiagoa ekarriko dute. Horrez gain, neurri horiei esker, 2014ko aurrekontu-ziklotik aurrera eurogunean indartutako koordinazioa izango dute eta finantza-presio handiak dituzten euroguneko kide diren estatuei behar bereziak aitortuko zaizkie.

Two-Pack izenekoa indarrean jarrita, Batasun Ekonomiko eta Moneta Batasuna indartzeko hartu beharreko neurri berrietarako bidea erraztuko dute Europako Batzordeak ezarritakoaren arabera. Aurrekontuak gainbegiratzeko zikloa osatzeko eta euroguneko gobernantza ekonomikoa hobetzeko beste urrats bat eman dute beraz.

Informazio gehiago:

http://www.consilium.europa.eu/uedocs/cms_data/docs/pressdata/en/ecofin/137077.pdf



DOKUMENTU INTERESGARRIAK

> **Europar Batasuneko Lehia Politikaren txostena. 2012 urteko txostena (Europako Batzordea)**

Europako Batzordeak Europako merkatu bakarraren funtzionamendu egokia bermatzeko garatutako ekintzak eta mugari nagusiak biltzen dituen urteko txostena.

Txostenaren arabera, 2012an Europako Batzordeak lehiaren nazio mailako agintariekin (ANC) lanean jarraitu du, Europar Batasunean monopolioaren aurkako arauak modu koherentean aplikatuko direla bermatzeko.

Zehazki, azken urtean, Batasunaren lehiaren arloko araudiaren exekuzioa bereziki oinarritu da sektore hauetan: Europako ekonomiarako garrantzi sistemikoa eta zeharkakoa duten sektoreetan, esaterako, finantza-zerbitzuetan; funtsezkoak diren sare-industrietan, esaterako, energian, telekomunikazioetan eta posta-zerbitzuetan; baita ezagutzaren arloko merkatu intentsiboetan ere, esaterako, telefono adimentsuetan, liburu elektronikoetan eta farmaziako produktuetan.

Informazio gehiago:

<http://eur-lex.europa.eu/LexUriServ/LexUriServ.do?uri=COM:2013:0257:FIN:ES:PDF>

> **ETE-en berregituraketa Europan (Eurofound)**

Enpresa txiki eta ertainek, beste edozein enpresak bezala, aldaketak izan ditzakete, baina berregituraketa neurri handiko helburuak oinarri hartuta egin ohi da eta enpresaren ezaugarri bereziak ez dira kontuan hartzen. Txosten honetan Europako ETE-ek dituzten erronka nagusiak aztertu dituzte arduradun politikoei arlo horren konplexutasuna erakusteko asmoz, batez ere, babes-neurriari eta -planei dagokienez.

Azterketa ETEak berregituratzeko aukera ugaritan oinarrituta dago eta arduradun politikoei gomendatzen die onargarritasun-irizpideak berriz ere aztertzeke eta ETEak babestera bideratutako zerbitzu zentralizatua eta finantziatio-programak eskaintzeko.

Informazio gehiago:

<http://www.eurofound.europa.eu/pubdocs/2012/47/en/1/EF1247EN.pdf>



> **Liburu Berdea: Ikus-entzunezko munduaren erabateko konbergentziarako prestatzea: hazkundera, sorkuntza eta balioak (Europako Batzordea)**

Liburu Berde honen helburua ikus-entzunezkoen egoeraren egungo eraldaketaren ondorioei buruzko eztabaida publikoa hastea da; izan ere, komunikabideen zerbitzuak etengabe eta gero eta gehiago bateratzen dira. Horrez gain, haiek kontsumitzeko eta emateko egungo moduez ere gogoeta egin nahi dute.

Konbergentzia irrati tradizionalako eta Interneteko zerbitzuen pixkanakako bateratzea dela esan dezakegu.

Informazio gehiago:

<http://eur-lex.europa.eu/LexUriServ/LexUriServ.do?uri=COM:2013:0231:FIN:ES:PDF>

> **Frantziako eskualdeen espezializazio adimentsuaren estrategiak prestatzeko gida (Frantziako gobernuak)**

Espezializazio adimentsurako (RIS3) ikerketako eta berrikuntzako eskualdeko estrategia definitzeaz eta ezartzeaz arduratuko diren arduradun politiko eta kudeaketa-kargudunei zuzendutako gida metodologikoa da; zehazki, hurrengo 2014-2020 programazio-aldian programa operatiboak prestatzeko lanetan parte hartzea du xede gidak.

Europako Batzordeak espezializazio adimentsuaren estrategia definitu du kide diren estatuak eta Europako eskualdeetarako betebeharrak gisa hurrengo 2014-2020 aurrekontu-aldian kohesio-politiken Europako funtsetarako sarbidea izateko. Espezializazio adimentsuak herrialde eta eskualde bakoitzeko ezaugarri eta aktibo eksklusiboak identifikatuko ditu, eskualde bakoitzaren lehia mailako abantailak nabarmenduko ditu eta bikaintasunera bideratutako etorkizuneko ikuspegiaren inguruan eskualdeko baliabideak eta partaideak bilduko ditu. Horrez gain, eskualde mailako berrikuntza-sistemak indartu, ezagutza-fluxuak ahalik eta gehien handitu eta eskualde mailako ekonomia guztirako berrikuntzaren onurak hedatuko ditu.

Informazio gehiago:

<http://www.europe-en-france.gouv.fr/content/download/22610/198811/file/Guide%20pour%20la%20strategie%20des%20specialisations%20des%20regions%20franaises.pdf>